

2026

LITERATURA

lehiaketa haurrentzat

Certamen Literario infantil en euskara



barañain.eus



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala



Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



euskarabidea

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2026ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 124 lan aurkeztu ziren eta epaimahaikide aritu zirenak dira:

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil y juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañáin en la primavera de 2026. En total se presentaron 124 obras, y el jurado estaba formado por:

EPAIMAHAIA - JURADO

LEHENDAKARIA - PRESIDENTE

Pablo Arcelus Cavallero

EPAIMAHAIKIDEAK - MIEMBROS DEL JURADO

Alaitz Institutuko irakasleak - Profesoras Instituto Alaitz

Judith Mariezkurrena eta Saioa Oskoz

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak - Profesorado C.P. Alaitz

Alberto Domingo eta Amaia Olite

Sahats-IKA Euskaltegiako irakasleak - Profesoras Euskaltegi Sahats-IKA

Verónica García eta Eider Canales

ARGITALPENA - EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara arloa - Ayuntamiento de Barañáin-Área de euskera

INPRIMAKETA - IMPRESIÓN

Ttipi-Ttapa

LEGE GORDAILUA - DEPÓSITO LEGAL

LG NA 1176-2026

Gure zorionik beroenak literatura lehiaketa honetan parte hartu duzuen ikasle guztioi, bereziki sarituak izan zaretenoi. Argitalpen honi esker, zuen kontakizun zoragarriak partekatu ditzakegu. Bertan jasotako istorioek edertasunari buruzko hausnarketara garamatzate, eta, hitzek duten indarrari buruzko goetoa egitera ere bai.

Oraingo honetan saritua ez bazara izan, gonbita luzatzen dizut berriro saia zaitez, agian hurbil ibili zara baina eta ez dakizu, kontuan izan ahaleginak beti duela saria.

Badira 36 urte jada honako literatura lehiaketa hau sustatzen gabiltzala, eta guretzat oso pozgarria da ikustea zenbat istorio kontatu dituzuen denbora guzti honetan. Hori dela eta, lehiaketarekin aurrera jarraituko dugu, ahalik eta adierazpenik handienean indartzeko eta, horrela, euskaraz idazten duten artista berriak aurkitzeko.

Nire agurrik beroena eta esker ona esperimentzia zoragarri hau posible egin duzuen guztioi.

Nuestras más sinceras felicitaciones a todo el alumnado que habéis participado en este certamen literario, y enhorabuena a los premiados y premiadas. Gracias a esta publicación podemos compartir vuestros maravillosos relatos, que nos trasladan a la reflexión sobre la belleza y el poder de las palabras.

Si en esta oportunidad no has recibido ningún premio, te animo a intentarlo nuevamente, tal vez estuviste cerca y no lo sabes, considera que el esfuerzo siempre tiene su recompensa.

Llevamos 36 años fomentando este certamen literario y para nosotros es muy gratificante constatar la cantidad de historias relatadas en todo este tiempo. Por esta razón seguiremos adelante con el certamen, para potenciarlo a su máxima expresión y descubrir así nuevos talentos y artistas de la palabra en euskera.

Mis más cordiales saludos y sincero agradecimiento a todos los que habéis hecho posible esta maravillosa experiencia.



Iz. - Fdo.

PABLO ARCELUS CAVALLERO

Kultura, Euskara eta Auditorioa Batzordeburua
Presidente de la Comisión de Cultura, Euskera y Auditorio

ABENTURA

Enara Iraola Samitier

1. SARIA (LH-3. E)

Duela asko, bi lagunek abentura izugarria bizi zuten. Mari ausarta eta mugitua zen eta Lai, berriz, lasaia eta beldurtia. Biei abenturak gustatzen zitzaizkien. Mariri abentura emozioarekin gustatzen zitzaion baina Lairi emoziorik gabeko abenturak gustatzen zitzaizkion.

Biek arropa berezia eramaten zuten: motxila, txano berezia eta gerrikoak gauza askorekin.

Paseo bat egiten zuten egunean udaberriko 1. eguna zen. Laino asko zegoen eta galdu ziren. Palmondo baten azpian geratu ziren lainoa pasa arte eta pasa zenean Lairi eta Mariri ideia bat bururatu zitzaien: animalien hizkuntza ikastea!

2 aste pasa ziren eta Marik eta Laik esperimientua probatu zuten tximu batekin.

- Tximu! Ulertzen didazu? –galdetu zuen Laik.
- Bai, ulertzen dizuet –esan zuen tximuak.
- Etxera joaten lagunduko diguzu?
- Bai!

Eta azkenean 3 lagunak etxera joan ziren bere hizkuntza berria ulertzen eta esperientzia onarekin.

Beste egun batean beste txango bat egingo dute eta hala bazan edo ez bazan Mari eta Lauren istorioa bukatu da.




GALDUTAKO GILTZA

Haizea Izcue Oses

2. SARIA (LH-3. E)

Orain dela urte asko, oso urrun dagoen erreinu batean, animaliak bizi ziren. Untxi bat, Ilargi deitzen zena, eta bere bi lagunak, azeri bat eta txori bat. Azeria Eguzki deitzen zen eta txoria Izar.

Egun batean erregea konturatu zen lorategiko giltza galdu zela. Lorategiko loreak magikoak ziren eta erregeak esan zion Ilargiri eta bere lagunei:



- Giltza aurkitu behar duzue.

Ilargi eta bere lagunak giltza aurkitzera joan ziren. Bat-batean ibai bat pirañekin aurkitu zuten. Ilargik, Eguzkik eta Izarrek enbor bat aurkitu zuten eta zubi bezala erabili zuten.

Gero laberinto batekin aurkitu ziren. Laberintoan 5 ordu egon ziren.

Gero ur jauzi batean dortoka zahar batek esan zien Ilargi eta bere lagunei:

- Giltza behar den lekuan dago.

Ilargi arratu bat pentsatzen egon zen eta bapatean esan zuen:

- Badakit, giltza lorategian dago.

Orduan erreinura joan ziren eta Ilargik erregeari giltza lorategian zegoela esan zion. Eta lorategian zegoen, baina ez zekiten nola hartuko zuten. Orduan esan zuen Ilargik:

- Makil batekin hartuko dugu.

Azkenik, giltza aurkitu zuten eta festa bat egin zuten. Festan janaria, musika eta barrakak zeuden eta oso ongi pasa zuten. Eta inoiz ez zen giltza gehiago galdu.

KABITIK ERORITAKO TXITOA

Mirari Arana Medina

1. SARIA (LH-3. F)

Bazen behin txori bat arrautzak jarri zituena. Eta bat-batean haize sendo batek arrautz bat lurrera bota zuen eta zuhaitz baten adar batek txoriari eman eta zauri bat egin zion. Lurrera begiratu zuenean arrautzaren kaskarak zeuden baina txito txikia ez zegoen. Ama oso triste jarri zen eta kabira begiratu zuen. Zorionez, beste arrautz guztiak kabian zeuden.

Bitartean txito txikia oinez basora joaten ari zen eta iritsi zenean bere aurrean hartz txiki bat zegoen. Jaten ari zen ezia atzaparretan gordetzen zuen. Azkenean, arratu bat eta gero, txitoak jatorra izango zela pentsatu zuen eta galdetu zion:

- Lagundu al didazu nire kabira bueltatzen?

Hartzak honela erantzun zion:

- Bai, lagunduko dizut eta lagunak egingo gara. Nondik etorri zara hona?
- Uste dut eskuinetik etorri naizela –esan zion txitoak.
- Orduan ez dakit nondik bueltatu. Pixka bat hobeto deskribatu, mesedez.
- Onddo asko zeuden toki batetik.
- Bale, ez dakit bidea baina nire lagun azeriarekin beti dakit bidea ze berak baso osoa super ongi ezagutzen du. Bere etxera joango gara.

Arratu bat eta gero azeriaren etxera iritsi ziren eta hartzak bere atean 3 kolpe eman zituen. Orduan azeri bat atera zen etxetik eta hartza ikusi zuenean hau esan zuen:

- Kaixo hartza, zergatik etorri zara?
- Txito txiki hau kabitik erori da eta ez dakigu nondik bueltatu.
- Etorri nire etxera.



Hartza eta txitoa azeriaren etxera sartu ziren. Azeria mapa asko zeuden toki batean mapa bat bilatzen ari zen eta aurkitu zuenean hau esan zuen:

- Begira, hau da basoaren mapa eta zuek hemendik etorri zaretenez, hemendik bueltatuko gara.

Hori esanda mapa hartu eta onddo asko zeuden toki batetik joan ziren baina kabia zegoen zuhaitzera iritsi zirenean ama ez zegoen. Pixka bat itxaron zuten eta azeriak ideia bat izan zuen:

- Agian, zauri bat egin duenez, sorginengana joan da.

Orduan txitoak esan zuen:

- Eta, nola dakizu hori?

- Ikusi nuelako sagu baten atzetik nengoen bitartean –esan zuen azeriak.

Orduan ama kabira iritsi zen janariarekin. Azeriak txitoa hartu eta bere amarekin eraman zuen.



INURRIEN MENDEKUA

Lur Unzu Lazkoz

2. SARIA (LH-3. F)

Duela 48 urte, inurriak beraien inurritegian pozik zeuden gauzak prestatzen, inurri txikiak jolasten eta denetik. Lur inurri bat zen, oso bortitza eta indartsua. 3 lagun zituen: Asier M., Dorel eta Mirari. Elkarrekin geldiezinak ziren. Garaitu ahal zituzten bakarrik elefanteak ziren. Handiak, azkarak eta indartsuak ziren.

Egun batean, jolastera joan zirenean, elefante talde bat hurbildu zen intentzio ez oso onarekin, orduan, elefanteak inurriak zirikatzen hasi ziren. Lur, Asier M., Dorel eta Mirari asko haserretu ziren baina bat-batean elefante batek Mirari tronparekin zurrupatu zuen eta airetik bota zuen. Laukoteak, Mirari aurkitu eta inurritegira joan ziren mendeku bat prestatzera.



Inurri guztiak bildu zituzten eta mendeku bat prestatu zuten. Inurriak alde guztietatik prestatu ziren eta tsunami forman eraso zuten. Borroka oso gogorra izan zen, elefanteek gogor borrokatzen ziren baina inurriak gehiegi zirenez, garaile atera ziren eta bakean bizi izan ziren.



Baina egun batean kamaleoi bat agertu eta inurriak erasotzen hasi zen.

LIBURUAREN MISTERIOA

Emily Pinto

1. SARIA (LH-4.E)

Bazen behin Barañaingo Alaitz eskolan gertatu zen misterio bat.


Melany eta Mariana jatorrak eta jakintsuak ziren.



Egun normal batean liburu bat aurkitu zuten. Ez zekiten nondik atera zen. Portada zaharra eta polita zen eta ireki egin zuten. Esaldi bat irakurri zuten eta liburuan sartu ziren. Mundu magikoan sartu ziren eta ez zekiten nondik atera. Irteera bilatzen hasi ziren. Asko bilatu zuten baina ez zuten aurkitu. Baina paisaia begiratu eta magikoa zen. Zuhaitzak zeuden, lakua zegoen, loreak zeuden eta tenperatura epela zegoen.

Beste aldean, kanpoan, haurrek liburua hartu zuten eta liburu normal bat zela pentsatu zuten. Orduan liburua orriz orri apurtzen hasi ziren eta mundu magikoa suntsitzen ari zen. Melany eta Mariana liburutik ateratzen saiatu ziren, baina zuhaitz batean ate bat zegoen eta giltza behar zen. Giltza lakuan zegoen. Orduan giltza hartu, atea ireki eta mundu magikotik atera ziren. Haurrak hitzik gabe geratu ziren.

Melanyk liburua hartu eta zakarrontzira bota zuen. Eskolako haur guztiak beldurraengatik etxera joan ziren. Eta liburu hori ez da inon agertu berriro.



DRAGOIA ETA BIKINGOAK

Hodei Aso Aranguren

2. SARIA (LH-4.E)



Bazen behin basoan oporretan zeuden 3 pertsona, Pedro, Juan eta Bob. Bob oso polita zen, Juan oso jatorra eta Pedro oso azkarra. Basoa oso iluna zen eta arantzadun zuhaixka asko zeuden. Bertan animalia baskati asko zeuden. Juan kanpadenda prestatzen hasi zen.

Bapatean dragoi bat eta bikingo batzuk agertu ziren. Bikingoak indartsuak ziren eta kasko adardunak zituzten. Dragoia handia eta gorria zen. Orduan 3 lagunek armak hartu zituzten. Juanek espata eta ezkutu bat hartu zituen, Pedrok motozerra bat eta Bobek aizkora hartu zuen.

Borroka gogorra hasi zen. Pedro dragoia hiltzen saiatu zen baina ezin zuen. Orduan Juanek espata dragoiari buruan sartu zion eta dragoia mugitu ezinik, Bobek aizkorakada bat eman eta buztana moztu zion.

Dragoia asko haserretu zen eta ahotik sua atera zuen, baina espatak eta aizkorak egindako zauriekin hil egin zen. Bikingoak, dragoiaren hilketa ikustean, eta dragoia bikingoak baino boteretsuagoa zenez, asko beldurtu ziren.



Bikingoak pertsonak zirenez, 3 lagunek ez zituzten hil nahi. Bikingoak ados zeuden eta

orduan lagunak egin ziren. Oso pozik jarri ziren denak eta han bizitzera geratu ziren. Egunero elkarrekin jan behar zutena ehizatzen zuten.

ENAI ETA PAKITOREN ABENTURA

Enara Perez Vaquero

1. SARIA (LH-4.F)

Duela bi urte, Indiako baso batean, etxe txiki batean, Morgan izeneko sorgin bat bizi zen. Morgan oso maltzurra zen eta Enai izeneko dragoi bat zuen. Enai ahotik sua botatzen zuen eta lo egitea asko gustatzen zitzaion.

Egun batean, Morgan eta Enai zizen bila atera behar zirela, Enai ez zen ohetik altxatzen. Orduan Morganek sorginkeri bat bota zion. Sorginkeriak hurrengoa zion:



“Pokus-Pokus, ohetik ez bazara altxatzen desagertu egingo zara”

Orduan Enai altxatu zen eta zizen bila abiatu ziren. Aldi berean, basoko beste leku batean, beste bi indibiduo zizen bila zebiltzan. Hauek, Lara eta Pakito, bere untxia, ziren.

- Pakito, ni baino lehen, nor izan zen zure zaintzailea? –galdetu zion Larak.
- Usain txarreko galtzerdiak zituen Enai izeneko dragoi bat –erantzun zion Pakitok.

Bat-batean, Larak konortea galdu zuen. Pakitok ez zekien zergatik. Baina gero konturatu zen ziza bat zuela eskuetan. Alergia berezi bat zion justu berak hartutako ziza horri. Momentu hartan, Pakito eta Enai topatu egin ziren eta paseoa bat ematera joan ziren. Paseoa ematen ari ziren bitartean, Morganek Lara aurkitu zuen eta esan zuen:



- Nire zoparako hau oso aproposa da.

Orduan Morganek Lara eraman zuen. Aldi berean, Pakitok Enairi esan zion:

- Orain nire zaintzailea Lara deitzen da.
- Eta non dago? –galdetu zion Enaik.
- A, egia da! Ziza bat jan du eta konortea galdu du –erantzun zion Pakitok.

Bilatu zuten baina ez zuten aurkitu.

- Nire zaintzailea Morgan izeneko sorgin bat da, agian berak dauka.
Goazen begiratzer! –esan zion Enaik Pakitori.

Orduan biak Morganen etxera abiatu ziren. Leihotik begiratu zuten eta hor zegoela ikusi zuten.

Lara salbatzeko galtzerdia bota zioten Morgani eta sorginak konortea galdu zuen.

Bukaeran, Morgan igel bihurtu zen eta hortik aurrera hiruak Morganen etxean bizi izan ziren.



ELTXOEN PLAGA

Lizar Gorria Uriel

2. SARIA (LH-4.F)

Bazen behin MariPontsa izeneko neska alai bat. MariPontsa, 1,40 cm-ko altuera zuen. Bere zaletasuna irakurtzea zen. MariPotsa oso azkarra zen.



Egun batean, MariPontsa kaletik paseatzen ari zenean kartel handi bat ikusi zuen. Kartelean jartzen zuen:

“Afrikara joan nahi baduzu DIGI enpresarekin doanik joan zaitezke”.

MariPontsak hori ikusi zuenean karteleko telefono zenbakira deitu zuen. 123 673 446ra deitu

zuenean, hurrengo ostegunerako erreserba egitea eskatu zuen.

Osteguna iritsi zenean, MariPontsa 01:00etan bidaian abiatu zen. Bidaian pertsona bat ikusi zuen; pertsona hori beltzez jantzita zihoan eta ez zitzaion ezer ikusten. MariPontsak ikusi zuenean plaka bat zuela ikusi zuen. Plaka horretan “SIRA” jartzen zuen. MariPontsak orduan “SIRA” oihukatu zuen, baina ez zuten erantzun. Orduan MariPontsak pentsatu zuen: “Bere izena izango balitz, erantzungo zuen”. Orduan pentsatzen jarri zen: “Mmm! Pertsona hori Rias, Siar, Risa, Asir, Rasi edo Sira deitu behar da.”


Hegazkinetik jaitsi zenean, bere 5 izarreko hotelera joan zen. Hotelean gerenteak esan zion:



- Tori, MariPontsa, eltxoen plagarentzako da. Etxo batek zizta egiten badizu, krema hau eman.

MariPontsa bere apartamentura iritsi zenean, bere ordenagailuan produktuaren izena bilatu zuen. Produktuaren izena ikusi zuenean "Aris" jartzen zuen. MariPontsak orduan pentsatu zuen izen hori hegazkinaren pertsona horren plakaren izenaren berdina zela, orduan interneten "Rasi, Risa, Siar, Rias" bilatu zuen. "Rasi Afrikara etorri da, 1.000 euro aurkitu egiten baduzu, bera beti beltzez dijoa eta ez zaio ezer ez ikusten, beti leku berean dago, Liki kalean". MariPontsak hori ikusita esan zuen. "Rasi eltxoen plaga honen atzean dago". Orduan Liki kalera joan zenean, Rasi hor zegoen, eta MariPontsak Rasi ikusi zuenean, Rasik eltxo asko bota zizkion. Baina MariPontsak haien aurkako produktu hori zuenez, eltxoen kontra bota zuen eta Rasi harrapatu zuen. Poliziarengana eraman zuen eta 1.000 euro eraman zituen.

Bukaeran, Rasi pena ematen zionez, fiantza ordaindu zuen eta MariPontsak Rasirekin nini bat izan zuten eta ninia Eki deitu zuten.



MUNDUAREN AMAIERA

Oinatz Peña Medina

1. SARIA (LH-5.)

Dena 2026aren martxoaren 31n, gaueko 9etan hasi zen laborategi zientifiko batean. Zientzialariak laborategian aurkitzen ziren gauza kimikoekin ikerketak egiten. Baina egun batean gauza bat gaizki atera zen eta denak zonbietan bilakatu ziren eta jendea jaten hasi ziren. Orduan gero eta zonbi gehiago zeuden.

Nik, jakin nuenean, nire lagunekin geratu nintzen nire etxean. Denak etorri zirenean hitz egin nien birusari buruz eta ez zidaten sinistu. Baina gero probak erakutsi nizkien eta sinistu zidaten.

Nire etxean pasatu genuen gaua baina ezin genuen lorik egin zonbien erruagatik. Goizeko 5etan denak esnatu nituen zeren zonbiak nire etxeko atea apurtzen hasi ziren. Apurtu zutenean ihes egin genuen. Leihotik jaitsi ginenean gauza bat sentitu nuen. Norbait falta zela.

Denak ikusi nituen eta lan faltatzen zen. Berriro igo nintzen eta zonbian bilakatuta zegoen. Eskapatu ginen eta leku bat bilatu genuen ongi egoteko. Hirugarren egunean, ongi hasi genuen eguna. Denak esnatu eta supermerkatu batera joan ginen janaria hartzera. Baina zonbiak agertzen hasi ziren eta eraso egiten hasi ziren.

Gu ere borrokatzen hasi ginen zonbiekin eta hiru lagun hil ziren: Danel, Markel eta Aitor. Ondoren esan ziguten sendagai bat asmatu zutela eta ospatu genuen. Gero sendagaia bilatzera joan ginen eta ez genuen aurkitu. Armeria bat aurkitu genuen eta armak hartu genituen.

Azkenean, sendagai hori aurkitu genuen baina laborategi zientifiko batera joan behar ginen. Laborategian zonbi asko zeuden eta haiekin borrokatu behar ginen. Orduan prestatu ginen eta denak laborategira joan ginen mundua salbatzera. Ailegatu ginenean ez zegoen inor. Gero sartu eta borrokatzen hasi ginen. Azkenean irabazi genuen eta mundua salbatu genuen.

Gero Kanarietara bizitzera joan ginen eta horrela bukatzen da nire istorioa.

DRAGOI ESKARLATA

Markel Lopez Ordoyo

2. SARIA (LH-5.)

Duela urte asko, Erdi Aroan, basoaren sakonean, dragoien herri bat zegoen. Urriaren 10ean dragoi bat jaio zen.

Eskarlata kolorekoa eta oso txikia zen. Bere aitak dragoi berde eta urdinak ziren. Jaio zen dragoia Grog deitzen zen. Baina Grog dragoi mota oso arraroa zen. Munduan berdinak ziren bi besterik ez zeuden. Grog dragoi eskarlata eta Shu, dragoi purpura.

Baina bat-batean, herriaren erdigunean “BOOM!!!” entzun zen. Eztanda bat egon zen eta bere atzetik Shu, dragoi purpura agertu zen. Grogen aitak, gudara joan ziren herriko dragoi indartsuenak zirelako. Azkenean herritar denak hil egin ziren. Grogen aitak, Grog zaintzeagatik azkenean hil egin ziren. Azkenean, Grog izan zen bizirik atera zen bakarra.

16 urte pasa ziren eta Grog, trauma bat zuelako, ez zen inorekin fidatzen. Jen-deak beldur zion. Oso handia zen, hortz oso handiak zituen, baita bi adar oso handi buruan ere eta eskarlata kolorekoa zuen gorputza.

Baina egun batean, pertsona bat agertu zen. Txikia, argala eta begi moreak zituen. Grogek esan zion:

- Joan hemendik edo hil egingo zaitut.
- Ez dizut beldurrik –erantzun zion pertsona horrek.
- Zer esan duzu? –galdetu zuen Grogek.
- Entzun duzuna. Eta beste bi gauza. Lehenengoa, nire izena Chi da, eta zurea? Eta bigarren gauza: nire laguna izan nahi duzu?
- Nire izena Grog da, eta bai, zure laguna izan nahi dut.

Hortik aurrera, Grog eta Chi lagun hoberenak izan ziren betirako eta abentura asko bizi zituzten.

2 urte pasa ziren. Grog eta Chi 18 urte zituzten, eta Shuren kontra borrokatzeko prestatzen ari ziren. Shuren gaztelura ailegatu ziren eta Grog eta Chi borrokan hasi ziren. Shuren kontra borrokatzen hasi zirenean bere eraso indartsuenak bota zituzten eta Shurekin bukatu zuten. Shu hil zenean "BOOM!!", eztanda egin zuen. Grog eta Chi ia-ia mundua apurtu zuten. Orain oraindik daude historian munduko erregeak izan zirelako.

Irakaspena: inoiz ez amore eman.

MOMOTXORRO HIPNOTIZATUAK

Oier Maritorena Gonzalez

1. SARIA (LH-6.E)

Kaixo, Eiger naiz, 11 urte ditut (ia-ia 12) eta Barañainen bizi naiz. Gaur otsailaren 28a da eta duela 15 egun inauteri eguna izan zen, nire urteko egunik gogokoena, baina aurtengoak azkar ahaztea espero dut.

Eguna ezin hobeki hasi zen, gosaltzeko gofrea zegoen! Gosaltzen amaitu nuen, aurrean, aurrean esleitu ziguten pertsonaiaren moztorra jantzi nuen, hau da, Barañaingo txatxo. 8:45ean Jonekin Udaletxe plazan geratu nintzen eskolara elkarrekin joateko eta hala egin genuen. 12:30ean Barañainen zehar kalejira egin genuen eta ondoren dantza jaialdia (urtero bezala). Ni jaialdia bukatzeko irrikitan nengoen, hau bukatzean momotxorroek eskolara sartzeko ohitura dutelako, baina aurrean, arrazoren batengatik ez ziren etorri. Oso arraroa.

14:00etan ama nire bila etorri zen. Ez nuen asko bazkaldu, eskolan merendola egin baikegun. Bazkaldu ondoren, telebista pixka bat ikusi nuen eta gero momotxorroz moztortu nintzen. 17:00etan plazara joan nintzen, lagun batzuekin geratua bainintzen. Momotxorroak beranduago etorri zirenez, haurrak mugiarazten egon ginen bitartean.

19:00ak aldera, azkenean, momotxorroak etorri ziren, baina haragirik gabe, eta gainera, ez zuten jendea izutzen! Ni zuzenean zer gertatzen zen ikustera joan nintzen. Momotxorroak zeramatzen gazteek kasko moduko gauza arraro bat zeukaten buruan. Niri bururatu zitzaidan norbaitek kasko horiek jarri zitziela buruan eta bere etxetik beraien mugimenduak kontrolatzen zituela. Nire lagun Felixi deitu nion, bera gauza hauen friki bat denez, lagundu ahalko zigulakoan. Felixek azaldu zidan lakuko txalet batetik ari zela norbait momotxorroak kontrolatzen. Hortaz, hara joan ginen.

Felixek zioen txaletak beldur pixka bat ematen zuen, baina hala ere sartu ginen. Lehenengo solairuan ez genuen ezer susmagarriarik aurkitu, beraz, bigarren solairura igo ginen. Bigarren solairuko teilatuan zaratak entzuten ziren. Hortaz,

ganbarara igo ginen. Ganbararen amaieran argi bat ikusten zen eta horra hurbildu ginen. Momotxorroak nork kontrolatzen zituen ikusi nahi genuenean ahoa bete hortz geratu ginen: Jon zen!

10 minutu ondoren, lasaitu zenean, zergatik egin zuen azaldu zigun. Joni beldur asko ematen diote momotxorroek. Horregatik kontrolatu zituen, beldurrik ez pasatzeko. Egia zen haur askok beldur ikaragarria zietela momotxorroei eta inauteri egunean ez zirela etxetik irteten. Hori dela eta, inauteriak pasa zirenean, Barañainen bilera bat antolatu zen.

Bileran gauza asko erabaki ziren, adibidez, hurrek “EZ!” esaten bazuten, momotxorroak gelditu egin beharko zutela.

Horrela, hemendik aurrera inauteriak denen gustokoak izanen dira, baita herritarren egun gustokoena ere.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Barañaingo plazan.

AZKENAK. EKAIREN BAKARDADEA

Unax Rivas Calleja

2. SARIA (LH-6.E)

Nafarroa 2030. urtean. Ekai eta Ane bakarrik bizi dira pertsona guztiak desagertu direnetik. Egunero bere familiaren bila joaten dira baina arrastorik ez. Ekai eta Ane bikiak dira eta gaur haien urtebetetzea da.

- Zorionak guri, zorionak guri, zorionak gu geuri, zorionak guri! –abestu zuten biek eta Ekaik egindako pastela jan zuten.
- Tori, Miku, gaur katuentsako pate-ederra jango duzu.

Miku katu zuri-zuri bat zen. Ekaik ile beltza du eta begiak zerua bezain urdinak ditu. Beroki urdin batez janzen da. Anek ere ile beltz-beltza du eta begi horiak. Beroki zuria darama. “12” zenbakiko kandelak itzali dituzte eta bien artean afaria prestatu dute.

Hurrengo egunean Ekaik gosaria prestatu du eta biak elkarrekin gosalduta. Gero ardien esnea hartu dute. Baina gauzak okertzen dira bikiak hiri batean sartzen direnean...

- Korrikatu gehiago, Ane! Harrapatuko gaitu! –oihukatu zion Ekaik Aneri.

Itzal beltz bat zuten atzetik. Bat-batean lurra apurtu zen eta handik itzal gehiago aterata ziren. Orduan itzal batek Ane hankatik eutsi zuen.

- Ekaiiii!!!

Ane itzaletan gelditu zen.

- Aneeeee!!! Zergatik?!

Ekai negarrez hasi zen eta itzal batek Ekai hartu zuen. Orduan Ekairi begiek distira egiten zioten eta argi-eztanda bat egon zen eta Ekai zorabiatu eta lurrera erori zen. Jakin gabe, itzal guztiak desagertu ziren lekutik.

Hurrengo goizean, etxe batean esnatu zen.

- Non nago? Hau ez da nire etxea.



Ekaik benda bat zeukan besoa. Egongelara joan zen eta bertan gizon bat zegoen sofán.

- Azkenean esnatu zara, mutil! 2 egun egon zara lokarturik. Itzal horrek zauri handia egin zizun –esan zuen gizonak.

- Nor zara zu? Eta, non nago? Miku? Non dago Miku? –galdetu zion Ekaik kezkatuta.

- Egon lasai, mutil. Katutxo ongi dago.

- Nik uste nuen azkena nintzela munduan –komentatu zuen Ekaik.

- Ni Gorka naiz. Nire familiarekin nengoela, ezustekoan denak desagertu ziren –kontatu zion Gorkak.

- Agian elkarrekin lan eginez beste pertsonak aurkit...

- Zure besoa, Ekai!

Ekairen besoa distiratzén hasi zen eta bat-batean zauriak desagertu ziren. Orduan airean argi zuri batzuk ateratu ziren.

- Agian bolatxo argitsuak jarraitu behar ditugu –esan zuen Gorkak.

Honela hiruak segitzen hasi ziren eta 2 ordu eta gero baso batean sartu ziren. Miku korrika hasi eta besteak atzetik jarraitu zioten.

- Nora zoaz, Miku?

Mikuk zuhaitz bat aurkitu zuen. Han argiak bukatzen ziren. Zuhaitzean marka bat zegoen.



- Beitu, Ekai! Zure eskuan zuhaitzean dagoen marka berdina duzu!
- Agian nire eskua zuhaitzaren kontra jarri behar dut.

Ekai zuhaitzera hurbildu zen eta eskua zuhaitzean jarri eta gero enborretik ahots bat atera zen:

- Markaren eramailea bazara, mundua zure eskuetan dago.

Lurra hautsi zen eta itzal asko Ekairen bila joan ziren. Itzalek Miku eta Gorka harapatu zituzten.

- Ekaiiii!!! Mundua zure eskuetan dago!!!
- Buaaa, sniff! Orain bakarrik nagooo!!! Nire familia nahi dut!!

Ekaik bere eskuak aurrean jarri zituen eta itzalak txikitu zituen. Bere aurrean, familia, Miku eta Gorka agertu ziren. Denak besarkatu zituen.

Bere amonak esan zion itzalak tristurarekin agertzen direla eta duela 60 urte hau ere pasatu zela. Berak ere mundua salbatu zuela.

- Bakarrik egon naiz, jasanezina zen. Ez dut nahi inor ere ez horregatik bakarrik egotea. Denak zainduko ditut.

MAIDERREN ABENTURA: FANTASIA “ERREALA”

Eloisa Rivas Rotella

1. SARIA (LH-6.F)

Inoiz ez nuen pentsatuko nire etxearen ganbarako argazki zahar horrek sekretu hori gordeko zuenik. Ez dakizue zertaz ari naizen hitz egiten, ezta? Ba orduan, hasieratik hasiko naiz.

Ni Maider naiz. Begi berdeak ditut, ile marroia eta puntak urdin-argiak dira. Su-durra eta ahoa txikiak ditut eta belarriak ere. Ertaina naiz eta ez dut azala oso argia itsasoan denbora asko pasatzen dudalako. Nire ustez, oso neska alaia naiz, zintzoa, azkarra eta atsegina, baina batzuetan haserretzen naiz.

Nire etxean, gustura, filma bat ikusten ari nintzen eta nire amak ganbarara litro bateko esne botila bat hartzera joateko esan zidan. Nagikeriaz, altxatu eta hartzera joan nintzen “joango naiz” nire amari erantzun eta gero. 19 eskailera eta erdi igo ondoren (bat erdi apurtuta zegoelako), apalategi baten gainean esnea zegoen. Esnearen ondoan, zoritxarrez, zeramikazko pitxer bat zegoen eta esperoko zenuenez, esnea hartu nuenean, nire gainean erori zen. Sorpresaz, ez zen apurtu, baina barruan zerbait zegoela sumatzen nuen. Orduan, orain bai, lurrera bota nuen nire eskua barnean sartzen ez zelako. Apurtu eta gero, Iruñeko argazki zahar bat zegoela ikusi nuen. Behean, izkin batean, data jartzen zuen: 1843/11/29.

Hatzaren punta-puntarekin argazkia ukitu bezain laster, ingurunea lausotu zen eta gero objektuek kolorez aldatu zuten. Argazkia, hori gertatu baino lehen, txuri-beltzez zegoen, gero berdea bihurtu zen, ondoren urdina, morea, laranja, gorria, horia... A, zer erokeria! Bukatu zen unean, konortea galdu nuen eta lurrera erori nintzen. Bat-batean ohatze batean esnatu egin nintzen. Dena amets bat zela uste nuen, baina... Non nengoen!? Hori ez zen nire logela, noski. Logela hartan zerbait gaizki zegoen. Oso pobrea iruditzen zitzaidan. Gero buruan mina sentitu nuen eta ukitu eta orduantxe, bustia zegoela sentitu nuen. Odola zegoen. ➔

Gertatu zitzaidana gogoratu nuen eta bat-batean ahots batek esan zidan:

- Kaixo! Azkenean jaiki zara. Eskerrak! Ni Analis naiz, eta zu?
- Ni Mai... Baina, nor zara zu? –esan nuen erotasun ahotsarekin.
- Analis naiz. Esan diz... –eta Analisek bukatu gabe, nik jarraitu nuen.
- Bai, baina non nago? Noiz nag... ez, ez, ez, ez! 1843. urtea da! Ez da?
- Bai. Zehatz mehatz azaroaren 29a. Baina zergatik zaude hain urduri? –txundituta galdetu zidan.
- Nire urtea hau ez delako. Ni 2020. urtean bizi naiz. Benetan esaten dizut! Mesedez, sinetsidazu!
- Ulertzen dut... –Analisek erantzuten zuen behera begiratzuz.
- Benetan? Baina uste nuen... zu ez... nola...? –ulertu gabe hitz eta pitz nengoen.
- Ulertzen dut zu erotuta zaudela! –esaten zuen haserre Analisek.
- Baina esan didazu.. zu ulertu... Baina ulertu egin duzu!
- Lehen ez didazu bukatzen utzi, tuntuna.
- Niri ez dit inork tuntuna deitzen! –esan zuen protagonistak, oso haserre.
- Begira Maider, nik ez dizut sinisten, baina lurrean botata eta buruan zauri bat zenuela ikusi nuenean, pertsona oso zintzoa eta ona zinela sumatu nuen, horregatik etxera eraman zintudan.
- Orduan sinisten didazu? –galdetu nion aurpegiari irribarre batekin.
- Sinistu beharko dizut.

Ohatzetik altxatu nintzen eta besarkada handi bat eman nion Analisi “Eskerrik asko” esaten nuen bitartean.

- Baina nola etorri zara honaino 2020. urtean bizi bazara? –galdetzen zidan Analisek.
- Nire amak esnea hartzera joateko esan zidan, orduan... –eta gertatu zitzaidana kontatu nion– zu argazkian zeunden! Horregatik zurekin nago, uste dut. Pertsona gehiago zeuden, baina ez nuen inor gehiago ikustea lortu. Itxoin! Bai! Gizon bat gehiago ikusi nuen. Beldur pixka bat ematen

zuen. Niri gutxienez. Bizarra eta ilea luzea eta txuria zuen, Dumbledore bezala.

- Nor da Dalbentor hura?

- A, egia da...

- Ez du inporta.

- Ados.

- Ze da "a dos"? "A" letra eta gaztelaniaz "bi" zenbakia!?

- Baina zertaz hitz egi...!? Utzi –esan nuen nekatuta.

- Konforme –erantzun zuen Analisek, gaia utzi nahian.

- Hori! "konforme". Ez zitzaidala ateratzen.

- Maider... Ah! Eta uste dut nortaz hitz egiten ari zaren badakidala. Gizon hortaz. Bere izena Abaigar jauna da. Berarengana eramango zaitut.

- Hobeto ezin.

Biok etxetik atera ginen eta kalezulo ilun batean sartu ginen.

- Non gaude? Benetan hemendik sartu behar gara?

- Abaigar jauna etxerik gabe dago, orduan hemen bizi da. Egunero janaria ekartzen diot eta bera, trukean, Iruñeko kaleetatik bere ustez balioetsuak diren objektuak hartzen ditu eta niri oparitzen dizkit. Oso jatorra da, ikusiko duzu.

- Kaixo, Analisis! Oh! Norekin etortzen zara? –galdetzen zuen Abaigar jaunak, harriduraz.

- Ee.. Nire lagun bat da eta ezagutu nahi zintuen. Gaiaz aldatzen, etxera azkar bueltatu behar garela. Tori zure janaria, eta, zer aurkitu duzu kalean gaur?

- Tori, pitxer bat da. Hemendik hurbil aurkitu dut. Barruan zerbait duela uste dut, baina nire eskua barruan sartzen ez denez eta balioetsua dela uste dudanez, ez nuen apurtu nahi –Analisek, Abaigar jauna hitz egiten ari den bitartean, pitxerra eskuetan hartu zuen, xehetasunak ikusi zituen eta niri eman zidan.



- Ulertzen dut –esan zuten hitz egiten bukatu zuenean bi neskek batera.

Denak barrezka hasi ziren.

- Barkatu, baina egin behar dut –esan nuen eskuekin gora pitxerra hartu ondoren.

“Krash!” Amarekin egindako argazkia zapi batekin hartu nuen, 1843. urtera joan baino ordu batzuk lehenago egindakoa. Argazkia hartu nuen eta Abaigar jaunari eskertu nion. Korrika Analisen etxera joan ginen. Abaigar jaunarekin agurtu ginen. Iritsi ginenean zerua guztiz beltza zegoen. Azken besarkada bat eman genion elkarri. Jarraian nire gauzak hartu nituen, argazkia hatzaren punta-puntarekin ukitu nuen eta desagertu nintzen. Nire etxean agertu nintzen. Ganbarako lurrean, etzanda. Altxatu nintzen, esnea hartu, 19 eskailera eta erdi jaitsi nituen. Nire amarengana korrika joan nintzen eta besarkada bat eman nion “Eskerrik asko, ama. Hoberena zara” esanez.

Zirri-zarra, hemen amaitu da nire ipuin-zaharra.

NON DAGO ALKATEA?

Gabari Villar Yaniz

2. SARIA (LH-6.F)

Bazen behin lagun talde bat Euskal Herriko herri txiki batean (Mendizubi izeneko) bizi zena. Xuban, June, Oinatz eta Maddi deitzen ziren taldeko kideak. Primeran konpontzen ziren haien artean. Batzuetan haserretzen ziren, baina berehala konpontzen ziren beti. Oso gustoko zituzten rol-jokoak eta egunero elkartzen ziren Xubanen etxean jolasteko. Hamaika orduz egoten ziren han. Junek jokoa gidatzen zuen beti eta denak primeran pasatzen zuten. Beti monstroak agertzen ziren bat-batean eta beraiek dadas bota behar zuten zerbait egiteko:

- Baina bat-batean isatseko herensugea agertzen da! –esan zuen Junek.
- 20 ateratzen badut, ezpata batekin hilko dut herensugea! –erantzun zuen Oinatzek.

Eta horrela ematen zituzten egunak.

Egun batean, partida erdian zerbait entzun zen kanpoan.

- KLONK KLONK! –norbaitek atea jo zuen.

Xuban begiratzera joan zen eta kanpoan bakarrik neskato bat ageri zen. Neska Arhane deitzen zen eta bere munduko gauzarik gogokoena rol-jokoetara jolaste zen. Xubanez ez zekien zer egiten zuen han Arhanez, baina elkarrekin jolasten hasi ziren denak.

Hurrengo egunean, Oinatz gosaltzen zegoela, etxeko atetik bere aita sartu zen aldizkari batekin eskuan:

- Begira! –esan zuen aitak– Gauza harrigarri bat gertatu da gure herrian orain dela bizpahiru ordu.



Berehala familiako kide guztiak gerturatu ziren aita eskuetan zuen aldizkaria begiratzera. Aitak irakurtzen jarraitu zuen:

- “MENDIZUBIKO ALKATEA DESAGERTU EGIN DA. Andoni Goikoetxea alkatea desagertu egin da eta ez dago arrastorik ere”.
- Eta gainera aldizkariko orri guztietan albiste beraz hitz egiten da –gehitu zuen Oinatzen amak.

Momentu horretan herriko jende guztiak beldur apur bat sentitu zuen, eta berehala taldeko lagunak Mendizubiko plazan elkartu ziren.

- Lagunak! Entzun duzue gaurko albiste nagusia? –galdetu zuen Maddik kezkatuta gongo balitz bezala.

Beste guztiek baietz erantzun zuten.

- Eta zer egingo dugu? Hemen itxaron zerbait gertatu arte? –jarraitu zuen Xubanek, deskonforme.
- Zer iruditzen zaizue misterio hau argitzen badugu? Agian arriskutsua izan daiteke baina ezin dugu paso egin.

Denak ados jarri ziren eta herritik arrastoren bat bilatzera joan ziren txirrindularekin. Bilatu zuten lehen lekua udaletxea izan zen. Txirrindulak aparkatu eta eraikina sartu ziren. Sartzerakoan, harreragilearekin topo egin zuten:

- Egun on, lagundu ahal zaituztet? –galdetu zuen.
- Bai, Andoni Goikoetxearen informazioren bat bilatzera etorri gara.
- Inork ez daki ezer ez horretaz, bakarrik egun hartan ez zela lanera etorri.
- Baina zerbait gehiago gertatuko zen, adibidez, agian... istripu larri bat izan ahalko zuen –esan zuten beldurrez lagunek.
- Ba ez dakit.

Lagunak haien etxeetara joan ziren afaltzera. Hurrengo egunean eskolatik atera bezain laster, lagun guztiak etxera korrika joan ziren txirrindulak hartzera eta berehala abiatu ziren berriro alkatearen bila. Lehenengo plaza guztietatik bilatu zuten, beranduago denda eta merkatu txiki guztietatik, eta azkenik parketik. Baina ezer ez!

Herrian alkatearen falta sentitzen hasi ziren eta jendea oso larri jartzen hasia zenean, herri osoa bere bila joan zen. Bilatzeko geratzen zen leku bakarra basoa zen, baina hori herri osoko leku handienetarikoa zen. Baita ere poliziak lagundu zuen ikerketan. Eta nahiz eta polizia-burua Japonen oporretan egon, han alkatea rol-jokoetara jolasten ikusi zuten, Arhane izeneko neska batekin! Badakizue nor zen?